

2018ko hirugarren hiruhilekoan, Zerbitzu lagungarriak eta Ibilgailuen salmenta eta konponketa, lider merkatuko zerbitzuen hazkunderan Euskal AEn

Urteko metatuan, Merkataritzaren salmentak, ibilgailuen salmenta eta konponketa barne, %1,8 gehitu ziren, eta Gainerako Zerbitzuenak %2,3

2018ko hirugarren hiruhilekoan, merkatuko zerbitzuen barnean, Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak (%4,7) eta Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa (%4,1) sektoreetan gertatu dira salmenten hazkunde-tasa handienak, termino finkoetan, 2017ko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera.

Merkataritza (handizkakoa, txikizkakoa, ibilgailuen salmenta eta konponketa) %0,5 gehitu zen termino finkoetan 2018ko hirugarren hiruhilekoan; Gainerako Zerbitzuak epigrafearen pean diren sektoreetan %2,0 hazi dira salmentak, hori dena aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

insetamotion

Urteko lehen bederatzi hiletan, prezioen eragina kendurik, Merkataritza %1,8 gehitu da, sektore bat zeinetan Ibilgailuen salmenta eta konponketak %6,8ko hazkundera pilatzen baitu. Gainerako Zerbitzuak %2,3 gehitu dira, non igoerarik handiena izan den Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarriena, %4,6ko gehikuntza metatuarekin urtean zehar.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,4 jaitsi da Merkataritza, baina Gainerako Zerbitzuak sektorea %0,3 gehitu da, urtaro-eraginak kendurik eta prezio finkoetan.

Merkataritzaren barruan, urte artekoan eboluzioa positiboa izan da Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan, %4,1eko hazkunderarekin, eta Handizkakoan %0,7koa izan da gehikuntza, baina Txikizkakoan salmentak %0,9 jaitsi dira.

Beste zerbitzuetan, termino finkoetan, Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrien salmenta-indizea %4,7 gehitu zen, Garraio eta biltegiatzearena % 3,4, Ostalaritzarena %2,5 eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoena %0,6. Kontrako norabidean, %1,9ko jaitziera izan zen Informazio eta komunikazioetan.

Lurraldeka, Merkataritzak eduki du bilakaera positiboa termino errealetan Araban zein Gipuzkoan, %3,2 eta %1,0ko hazkunderekin, hurrenez hurren, baina Bizkaian %0,6 jaitsi da. Gainerako Zerbitzuetan, oro har, hiru lurraldeetako eboluzioa positiboa izan zen hirugarren hiruhilekoan termino errealetan: Gipuzkoan %4,5 gehitu zen, Araban %2,7 eta Bizkaian %0,5, betiere 2017ko hirugarren hiruhilekoaren aldean eta prezioen eraginik gabe.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). III/2018

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
Merkataritza	0,5	-0,4
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	4,1	-1,2
Handizkako merkataritza	0,7	-0,2
Txikizkako merkataritza	-0,9	0,2
Bestelako zerbitzuak	2,0	0,3
Garraioa eta biltegiatzea	3,4	0,8
Ostalaritza	2,5	0,0
Informazioa eta komunikazioak	-1,9	-0,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	0,6	-1,3
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	4,7	1,7
Araba/Álava		
Merkataritza	3,2	0,8
Bestelako zerbitzuak	2,7	1,6
Bizkaia		
Merkataritza	-0,6	-0,9
Bestelako zerbitzuak	0,5	-1,6
Gipuzkoa		
Merkataritza	1,0	-0,3
Bestelako zerbitzuak	4,5	3,3
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE		
Merkataritza	1,0	0,0
Bestelako zerbitzuak	2,7	0,7

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

Euskal AEn langile okupatuak bi indizeetan gehitu dira, %1,0 Merkataritzan eta %2,7 Gainerako Zerbitzuetan, urte artean. 2018ko bigarren hiruhilekoaren aldean, indizeak ez dakar aldakuntza hautemangarririk Merkataritzan (%0,0) eta %0,7 goititu da Gainerako Zerbitzuetan, hori dena urtaro-eraginik gabe.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62